PEN International Writers for Peace Committee

Bled, Eslovenia

2018ko apirilaren 17-21a

Bileraren kronika

Sarrera eta Partaidetza

Aurten batzordeak 50. urteurrena ospatu du eta Eslovenia PENek ahalegin berezia egin du antolaketan. Partaidetzan ere nabari izan da urteurrena, inoiz baino zentru eta partaide gehiagok hartu baitu parte. Denetara **34 zentru** bildu dira eta **87 kide. Euskal PEN** ordezkatzeko Laura Mintegi eta Asier Serrano joan dira. Londreseko bulegotik eta Zuzendaritzatik 14 pertsona hurbildu dira eta batzordeak kongresu baten dinamika hartzen izan du une batzuetan. Horren adibide, **Shirin Ebadi** legelari iraniarra gonbidatu bereziaren presentzia. 2003an Bakearen Nobel sariduna jaso zuen eta aktiboki hartu du parte batzordearen hainbat unetan.

PEN Catalak aurten ez du ordezkapenik bidali, baina gutun publikoa bidali zuen eskerrak emateko azken hilabeteetan jaso dituzten babes adierazpenengatik, eta Esloveniako ordezkaritza Bartzelonara joateagatik PEN Catalaren 95. urteurreneko ospakizunetara, non Euskal PEN ere egon zen.

Emakume Idazleen Batzordea (PIWWC)

Batzordeburu den Elisabeth Nordgren (Finlandia) eta Sarah Lawson (Ingalaterra) idazleen gidaritzapean bildu da batzordea, partaide ugarirekin, aurtengo partzaidetza handiari esker.

Women's Manifesto. WfPC hasi bezperan bildu da Emakume Idazleen Batzordea (PIWWC). Batzorde hau azken urteetan gainbeheran egon bada ere, badirudi berbiztu egin dela *Women's Manifesto*-ari esker, Lviv-eko (Ukraina) kongresuan onartu zena 2017eko irailaren 27an. Hilabetetako lanak emaitza eman du eta Manifestua hainbat hizkuntzetara itzuli da. PENeko beste ekimen batzuen bidetik (Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, Hizkuntza Eskubideak bermatzeko Protokoloa...) bideratu nahi da Manifestua, eta Nazio Batuen erakundeei eskaini.

Emakumeak PENen historian. PEN Internationaleko fundatzailea emakume bat izan zen, Amy Dawson Scott, eta Marjorie Watts haren alabak idatzitako liburua (*PEN The Early years, 1921-1926*) aipatu da bileran. 2021an PENek 10 urte beteko ditu eta Oxford-en bilduko da kongresua. Ordurako zentruei eskatuko zaie beren historiaren berri emateko eta, bereziki, emakumeek zentru bakoitzean eduki duten presentzia aipatzeko. A.D. Scott-ek 1928ko ekainean idatzita utzi zuen, *"that women shall be considered eligible for membership of he PEN if writers"*.

Hate Speech. Gorroto adierazpena izan da gai nagusia, bereziki zuzenduta emakumeen aurka izandako gorroto adierazpenetara. Tratatutako beste gaiak izan dira "perspektiba historikoa eta ondorio hilgarriak", "hari mehea: gorroto adierazpena eta adierazpen askatasuna", "gorroto adierazpenaren biktimak", "prebentzioa eta PENen jarrera" eta "PEN kongresurako proposamenak".

Zentruen ekarpenak. Zentru batzuetako ordezkariek testigantza eman dute eta beren herrialdeetan dauden egoera lazgarriak azaldu dituzte, esaterako Mexikoko emakume indigenen egoera (Jennifer Clement), Turkiako emakumeena (Çiler Ilhan eta Zeynep Oral), non estatistikak ere ez dauden, eta, azkenik, Txinako emakumeen egoera (Sheng Xue).

WfPCren Asanbada Orokorra

Lehen esan bezala, 2021eko kongresuari begira zentruei eskatu zaie nork bere zentruaren historia prestatzen joan dadin PEN Internationaleko 100. urteurrenari begira.

Resolutions. Irailean Pune-n (India) izango den kongresura eramango diren batzordearen ebazpenak eztabaidatu dira, gogotsu eztabaidatu ere. Denetara hiru ebazpen aurkeztu dira.

- **Arma Nuklerrak** murriztaren aldekoa. Ipar Korearen eta AEBren arteko tentsioa aipatzen da lehenik, baina arma nuklearrak dituzten herrialde guztiei luzaten die eskaera (bereziki NATOtik kanpo dauden Israel, Pakistan, India, Txina, Errusia eta Iran), arma nuklearrak gradualki desegiten joan daitezen, 2030ean guztiz desagerrarazi arte.
- **Arma kimikoak** deitoratzea. Hasierako proposamenean aipamen berezia egiten zen Sirian arma kimikoz egindako azken erasoen gainean, baina eztabaida sutsu baten ostean erabaki da Siria ez aipatzea eta herrialde guztietan egindako eraso kimikoen aurkako ebazpena sinatzea.
- **Hungariako hauteskundeak.** Eztabaida handiena sorrarazi duen ebazpena izan da. Botazioa egin ondoren, aurkeztu moduan onartu da. Ebazpenak kritikatzen du Viktor Orbán presidente hautatu berriak duen diskurtsu eta jarrera arrazista, xenofoboa eta antisemita.

The PEN Peace Prize. Wales PEN taldeko Simon Mundy-k proposatu du *The PEN Peace Prize* sortzea *"to Honour Writers Who, Through Their Writing, Have Furthered the Cause of Peace"*. Saria aurkezteko proposamenean esaten dute bakea garrantzitsuegia dela politikarien eskuetan uzteko eta ezagutu behar dela idazleek (eta bakarrik idazeek) egin dezaketen ekarpena bakegintzan. Saria bi urtetik behin emango da. Lehenengoz 2019ko kongresuan emango litzateke eta hurrengoa 2021ean, PENen 100. urteurrenerako egonkortuta izan dadin.

Koordinatzaile batek kudeatuko du sariketa eta koordinatzaile honek WfPC batzordearen sostengua jasoko su epaimahaia sortzeko.

Sariak ez du ordainsari ekonomikorik (diru-iturriren bat lortzen ez bada) eta saridunak jasoko du artista gazteek egindako ikurra, idazluma formaz. Beharko lukeen babes ekonomiko bakarra da irabazlearen eta koordinatzailearen bidaia eta egoitza ordaintzea banaketa-ekitaldira joan ahal izateko.

WfPC batzordekideei helaraziko zaizkio hautagaiak eta batzordeak hartuko du erabakia. Idazlea sarituko da, ez bereziki bere lana, baina ulertutzat ematen da ez dela proposatuko kalitatezko lana ez duen idazlerik.

Mahai-inguruak. Bi mahai-inguru antolatu dira, *"Wall, Fence, Border"* lehena eta *"Literature as a right to dream"* bigarrena. Idazleek aurkeztutako ekarpenekin liburuxka bat argitaratu da.

Ekimen kulturalak. Asanbladaz gain, zenbait ekimen burutu dira, hala nola kontzertu (Godba Gorje, Ivan Andres Arnsek, Marko Hatlak & FUNtango), irakurketa literarioak, Ljubljana-ko National Gallery-ra egindako bisitaldia eta Boris A. Novak idazlearekin izandako jendaurreko solasaldia.

Euskal PEN
Bilbo, 2018-04-21